

TAILERRAREN INFORMAZIO GIDA

ARLOA: IRAUNKORTASUNA

TAILERRA: GURE ARRASTOA GUTXITZEN. MUGIKORTASUNA

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-
araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-
bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: formacion-
gipuzkoa@kontsumobide.eus



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. Helburua

Garraio publikoaren erabilera bultzatzea, eta garraio pribatuaren gehiegizko erabilerak gure planetaren ingurumen-iraunkortasunean dituen ondorio negatiboak buruz hausnartzea.

2. Edukiak

1. Garraio publikoaren eta garraio pribatuaren arteko konparazioa.
 - 1.1. Ingurumen-kutsaduraren alderdia
 - 1.2. Kontaminazio akustikoaren alderdia
 - 1.3. Alderdi ekonomikoa
2. Dagoeneko badiren ezagutzak aktibatzea. Garatuko diren edukien sarrera.
3. Garraio publikoko motak. Bidaiatzeko unean kontuan izan beharreko alderdiak.
4. Ohikoak ez diren bestelako erregaiak.
 - 4.1. Ezaugarriak.
 - 4.2. Ingurumen-abantailak.
5. Gure probintziako garraio bide publikoak.
 - 5.1. Hiriko eta hiriarteko ibilbidea egiteko eskaintzen dizkiguten aukerak.
 - 5.2. Bakoitzaren eskubideak eta eginbeharrak.
6. Ohiko joan-etorrietan bizikleta erabiltzearen alderdi positiboak.

3. Ariketak

3.1 Aurretikoa

Jardueraren bidez, atmosferara CO₂ gehiegi isurtzeak dituen eraginei buruz eta garraiobideek berori isurtzen nola laguntzen duten hausnartu nahi da. Horretarako, ikasleek arretaz testuak irakurri eta planteatutako testuek zein galderari erantzuten dieten asmatzen saiatu behar dira.

.....
.....

Ikuspuntu zientifikotik, atmosferara isurtzen diren berotegi-efektuko gasen ondorioa da. Gas horietako ohikoena karbono dioxidoa da. Problema handi bat da, gure planetan bizitza izatea posible egiten duen oreka hauskorra ezegonkortzen baitu. Temperatura-gradu batzuk soilik igota, gaur egun ezagutzen dugun mundua goitik behera aldatu eta mundu guztiko milioika pertsonen bizitza arriskuan jar baitezakete.

.....
.....

Oso argi eduki ezazu, mundua aldatu behar da. Karbonozko plantak eraiki beharrean, eguzki-plakak eraikitzean datza; zuhaitzak aldatzea oihan tropikalak moztu beharrean; eraginkortasuna areagotzea eta gure gastua gutxitzea. Beraz, milaka soluzio garatu behar dira. Horiek erdieste errazagoa izango litzateke, zientzia gaurkotuenean oinarritutako eta oinarrian berdintasuna eta justizia dituen hitzarmen batekin. Hitzarmen mota hori lortzeko, guztion etorkizuna inplikatzeko adina inporta zaien pertsonen mugimendua behar dugu eta mugimendu horrek bere ahots entzunarazi behar du.

.....
.....

Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Espainiako Institutuaren (IDAE) arabera, auto pribatu da pertsonako gehien kutsatzen duen garraiobidea hiriguneetan. Arazoa ibilgailuen okupazio baxua da. Petroliotik eratorritako erregaiek ere berotegi-efektuko gasen isuria areagotzen dute, garraio publikoek erabiltzen dituzten beste erregaiekin alderatuz gero, besteak beste, gas naturala edo elektrizitatea (energia berriztagarriak). Ibilgailu pribatu batek hirian, batez beste, 160 gramo CO₂ isurtzen ditu kilometroko.

.....

.....

Garraio publikoak mugikortasun pribatuak baino lanpostu bikoitz gehiago sortzen ditu eta kalitate hobegokoak. CO₂ isuri gehienak saihesten dira eta trafiko-istripuetan jende gutxiago hiltzen da. Batez ere, autorik ez duten Espainiako etxe herenen mugikortasuna hobetuko litzateke eta azpiegituren gastua murriztuko litzateke.

JARDUERAREN ERANTZUN-ORRIA

Zer da berotze globala?

.....

Ikuspuntu zientifikotik, atmosferara isurtzen diren berotegi-efektuko gasen ondorioa da. Gas horietako ohikoena karbono dioxidoa da. Problema handi bat da, gure planetan bizitza izatea posible egiten duen oreka hauskorra ezegonkortzen baitu. Temperatura-gradu batzuk soilik igota, gaur egun ezagutzen dugun mundua goitik behera aldatu eta mundu guztiko milioika pertsonen bizitza arriskuan jar baitezakete.

Zer egin behar dugu egoera hobetzeko?

.....

Oso argi eduki ezazu, mundua aldatu behar da. Karbonozko plantak eraiki beharrean, eguzki-plakak eraikitzean datza; zuhaitzak aldatzea oihan tropikalak moztu beharrean; eraginkortasuna areagotzea eta gure gastua gutxitzea. Beraz, milaka soluzio garatu behar dira. Horiek erdiestea errazagoa izango litzateke, zientzia gaurkotuenean oinarritutako eta

oinarrian berdintasuna eta justizia dituen hitzarmen batekin. Hitzarmen mota hori lortzeko, guztion etorkizuna inplikatzeko adina inporta zaien pertsonen mugimendua behar dugu eta mugimendu horrek bere ahots entzunarazi behar du.

Zein garraiobidek isurtzen du Co2 gehien eta zergatik?

.....

Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Espainiako Institutuaren (IDAE) arabera, auto pribatu da pertsonako gehien kutsatzen duen garraiobidea hiriguneetan. Arazoa ibilgailuen okupazio baxua da. Petroliotik eratorritako erregaiek ere berotegi-efektuko gasen isuria areagotzen dute, garraio publikoek erabiltzen dituzten beste erregaiekin alderatuz gero, besteak beste, gas naturala edo elektrizitatea (energia berriztagarriak). Ibilgailu pribatu batek hirian, batez beste, 160 gramo CO₂ isurtzen ditu kilometroko.

Zein dira garraio publikoaren abantailak?

.....

Garraio publikoak mugikortasun pribatuak baino lanpostu bikoitz gehiago sortzen ditu eta kalitate hobegokoak. CO₂ isuri gehienak saihesten dira eta trafiko-istripuetan jende gutxiago hiltzen da. Batez ere, autorik ez duten Espainiako etxe herenen mugikortasuna hobetuko litzateke eta azpiegituren gastua murriztuko litzateke.

3.2 Tailerrari dagokionez

ARIKETA 1: 350 BIDEOA

Bizitza osasuntsu batekin bateragarria izan dadin, CO₂ kopuruak maila jakin batzuen barruan mantentzeak nolako garrantzia duen hausnartuko duen bideoa ikusiko da. Baita CO₂ portzentajea atmosferan areagotzen duten faktoreak ere.

Hortik aurrera, ekintza ezberdinen bitartez, aukeratzen dugun garraiobidearen arabera ingurumenaren gaineko eraginari buruz gogoeta egingo da.

ARIKETA 2: “MODU JASANGARRIAN MUGITUZ” JOKOA

Hainbat proba dituen mahai-joko baten bidez, garraio publikoaren ingurumen-alderdiak, akustikoak eta ekonomikoak landuko dira, garraio pribatua erabili beharren publikoa erabiltzea bultzatzeko. Baita gure hiriak eskaintzen dizkigun garraio publikoak eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak ere.

ARIKETA 3: JOKUA “ASMATU HITZA”

“Pasapalabra”ren lehiaketan oinaturritako jokua. Ikasleek txirringarritza munduari buruzko kontzeptuak asmatu beharko dute.

4. Gaitasunekiko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Elkarbizitzarako konpetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
✓	✓		✓

Izaten ikasteko konpetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Zientziarako konpetentzia
	✓		

Teknologiarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	Arterako konpetentzia	Konpetentzia motorra
	✓		

4.2. Beste talde batzuk

Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala

Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa-espirtua	Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena
✓	✓		

5. Baliabideak

Informazio gidak

- KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2007.
- KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. 2009.
- ENERGIAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2006.
- GARRAIOAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2006.

Material didaktikoak

- KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZARAKO 133 TAILER. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritza. 2004.

Web-orriak

- BILBOKO METROA
www.metrobilbao.eus
- BIZKAIKO GARRAIOEN PARTZUERGOA.
www.cotrabi.com
- BIZKAIBUS
www.bizkaia.net/herri_lanak/bizkaibus/ca_index.asp
- HERRI BARRUKO AUTOBUSAK” BILBOBUS
www.bilbao.net
- EUSKOTREN ETA EUSKOTRAN
www.euskotren.es
- ALDIRIKOEN SAREA
www.renfe.es
- TRENBIDE-LINEA
www.feve.es
- CO₂ KALKULAGAILUA.
<http://www.iberdrola.es/webibd/corporativa/iberdrola?IDPAG=ESWEBMOVILIDADVERD>
[E](#)
- BILBOKO BIDEGORRIEN MAPAK ETA IBILBIDEAK
www.agenda21bilbao.net

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus